

**Kale Zaharreko gasoliñeria**

Zenbat urte dakola uste dozu argazki zahar honek? Apur bat erreparau ezker, ezta hain zailla, pertsona heldu samarrentzat gutxienez. Badira hiru edo lau xhetasun argigarri. Batetik letreruak erakusten doskuena: **Aloña tabernia**, gerra-ostian jarri zana; **Aurelio Igartuaren barberixia**, orain Gorrotxategi pastelerixia dagueen lekuan; eta **anuntziuentzako ohola**, bapebe kartel barik, por zierto. *O tempora! O mores!* Bestetik kaliak eta espaloiak antxiako adokiñez eta harlanduz jantzita dagoz. Gaiñera, bada beste detaille bat be: **gasoliñeria**.

Gasoliñeria hori Oñatin jarrittako lehenengua izango zan, publikua behintzat. Zipriano Zufiriak ipiñi eben II. Errepublikan inguruan, bere taberna-ostatu aurrian. Gaur letxe **Ona** izena cukan taberniak, baiña orduan jenterik gehixenak **Perratzailiena** esaten otzan, etxe horren atzekaldian Zufiria jaunaren perratokixa be egon zan-eta. Gasoliñia deposittotik kanporaketako, eskuz eragitten xakon aparatuorri, ezker-eskuma, *dringi-dranga*.

Gerra ondoren Illarramenditarrak hartu euen gasoliñeria eta 1960ko hamarkadan Kale Zaharretik **Apaolaza** Kalera aldatu zan. Hantxe egon da puntura arte; orain dala gutxi **Madalena** auzora eruan dauen arte. Gaur egun kale-zati hau oiñezkuentzat da, baiña sasue haretan be etzan kezka haundirik izango handik pasaiten zan trafikurekin. Surtidoría bertan egon arren, ezta kotxe bakar bat be ikusten inguru guztian.

Honezkerok asmauko zebein, ezta, noizkua dan fotografixia? Berrogeta hamar bat urte eskas izango dittu, gutxi gorabehera. Gure ustez, 1950eko hamarkadaren erdi aldera atarata egongo da.

J. E.

Argazki hau Udal Artxibokua da.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

BATVAK, S. A.**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila
Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)